

HERNANIKO UR ZERBITZUA

“Hernanin leku guztietan dago ura”

Ur Zerbitzutik esan zaigunez, egoera ‘oso ona’ da; azken 15 urtetan instalazio osoa aldatu da eta kontrol sistema guztia informatizatua dago.



Ur eta Argi zerbitzuko egoitza. Ordenagailu honek kontrolatzen du sistema osoa.

Hernanin ez omen dago ura besterik. Orain bederatzi-hamar urteko lehorte hartan ere, Hernani bere urak salbatu zuen. Añarbeko Mankomunitateak ura moztu egiten zuen, baina gure kaniletan ez zen urik falta izan, Karabeleko putzuari esker.

LAU ‘ITURRI’ HAUNDI

Hernaniarrak lau lekutatik hartzen dugu ura, bat orain geldirik badago ere. *Aparrietik* Ereñotzu, Fagollaga eta Epele osatzen dira. *Epellerreka* eta *Azpitartetik*, Larregain ingurua, Lastaola zaharra eta

Martindegi. Gainerakoek *Añarbeko* ura edaten dute. Zinkoeneatik beherako auzoetara (Karabel, Florida, Zikuñaga, Antziola, Akarregi...) bere pisuz etortzen da. Kas-kora, Portu, Osiñaga, Santa Barbara eta Latsunbe Berri osora Txantxilako depositutik. Eta Jauregi alde eta Galarreta ingurura, berriz, Santa Barbara atzean dagoen Marra-kaneko depositutik

DENA ORDENADOREZ

Ur-azpiegitura osoa infomatizatua dago. Informazio guztia Etxeberriko egoitzan zentrali-

zatu eta depositu guztiak handik kontrolatzen dituzte: bonbak martxan jarri eta gelditu, instalazioan inongo okerrik badagoen, kloroa eta gainontzekoak bota beharreko neurrian botatzen diren, deposituan zenbat ur dagoen... dena.

KARABELEGO PUTZUA

Hernanik, 1989an Añarbeko Mankomunitatean sartu artean, Karabeleko putzutik hartzen zuen ura. Orain, geldirik dago, baina, berriz ere martxan jartzekotan dabilta. Orduan, Añarbeko ura ez da ezinbestekoa izango. □

Pagoakoa da iturri potable bakarra

HERNANIN barrena, ur zerbitzuak kontrolatuta dituen dozena erdi iturritik gora badaude han eta hemen. (Pagoan 2, Epelen, Leokan, Elizatxon...) Garbitasun analisiak Añarbeko Mankomunitateak berak egiten ditu. Eta analisiek diotena egia bada, Pagoakoa ez beste denak ez dira edateko modukoak, potableak ez behintzat. Hala ere, jendeak ia guztietatik edaten omen du. □



Korrikalari bat Pagoako iturrian ura edaten.

PELOTA

Miel Ezpeletari omenaldia egingo diote larunbatean

Kiroldegian bi partidu izango dira. Bigarrenean, Esnal eta Oiaga neurtuko dira aurreko kuadroetan.

LARUNBATEAN omenaldia egingo diote Miel Ezpeletari Hernaniko pelota elkarteak. Urte luzeetan aritu izan da: lehenik, pelotan eta azken urtetan, umeeri erakusten. Oraindik ere lan handia egiten du horretan. Esker onez omenduko dute datorren larun-

batean. Esku pelota jaialdia 22:00etan hasiko da. Lehen partiduan, Castellanos-Oregi I Saralegi-Bazetaren kontra arituko dira; bigarrenean Esnal-Alonso Oiaga-Mendiaren kontra. Hernaniko bi pelotari profesionalek jarriko dute saltsa zalantzarik gabe. □

KILOMETROAK AZPEITIAN

Dobera Euskara Elkarteak autobusak jarriko ditu

Txartelak Zintzarrin, Txilin eta Doberan daude salgai.

IGANDEAN da *Kilometroak* ikastolen festa Azpeitian. Urtero egin ohi duen bezala, Dobera Euskara Elkarteak autobusak jarriko ditu joan nahi dutenentzat. Txartelak 1200pezetetan daude salgai Zintzarrin eta Txili tabernetan

eta Doberako lokalean bertan. Doberako bazkide direnek 1000pezetetan izango dituzte lokalean. Dagoeneko bi bete dira. Autobusak 09:30etan irtengo dira Atsegindegik eta arratsaldeko 7etan bueltatuko dira. □

AEUSKALTEGIAK

AEK eta Udal Euskaltegiak izen emateko epea luzatu egin dute

AEKn ostiralera eta Udal Euskaltegian datorren aste osorako luzatu dute izen emateko epea.

UDAL euskaltegian astelehenan hasi ziren klaseak, eta AEKn berriz, datorrenean hasiko dira. Matrikulazioa ondo joan da, eta maila guztietan atera dituzte taldeak. Oraindik

bada izena emateko aukera hala ere: AEKra, bertatik pasa edo 943 557801 telefonora deitu. Udal Euskalte-girako Biteritik pasa edo 943331896 telefonora deitu. □

Laboreak
Haizea

Eskulanak egiten irakasten dugu.

► Gurutze puntua ► Bainika
► Erdi puntua ► Enkage-Zirizko lanak
► Gakorraz lanak

HAIZEA
Kortsetegia - Mihsidenda
Telf.- 943 55 55 19
Kardaberaz 2, HERNANI

Goizez eta arratsaldez.
haurrak eta helduak

Ikastaroak

Roiznahi hasteko aukera.

AURKI

Eskulanak/Arte Ederrak

Tif.- 943 55 72 56
Elkano, 6. HERNANI

Egunean 1100 pertsonak egiten du kirola

Ikastaro ezberdinetan 650 lagunek eman dute izena aurtengo kurtsorako.



Neska koadrila Aerobic egiten kiroldegian. Gaur egungo modako kirola bihurtu omen da.

HERNANIKO kiroldegian hasi da urteroko mogimentua. Banaka edo taldeetan egiten du jendeak kirola, eta asko eta askok kiroldegiak jartzen dituen ikastaroetan. Ikastaroak otsaila edo ekainera artekoak dira luzeenak, baina, hilabetekoak ere badaude.

'AEROBIC'A LEPO

Aerobic-ean jende mordoak eman du izena aurtengo; 219 dira salto eta brinco dantzan ariko direnak. Hala ere, mutiak ez omen dira gehiegi ani-

matzen eta gehiengo neskek dira.

Igeriketan adin guztietako jendearentzako daude ikastaroak. Sei hilabetez gero hasten dituzte umeak piszina trebatzen, eta jende heldua ere asko joaten da. Igerian ez dakien edo dakiena hobetu nahi duen jendearentzako dago aukera.

Agua-gim (igeria eta gimnasia nahasian), karatea edo gimnasia egitera ere jendea apuntatu da. Guztira ikastaroetan 650 lagun daude eta egu-

nero kiroldegira inguratzen direnak 1100 dira batez beste.

KUOTAK

Kiroldegiko bazkide egiteko 14.600 pezeta ordaindu behar dira urtean. Bazkide familia osoa egiten bada, berriz, 22.300 pezeta guztiena. Langabetu edo diru sarrera txikiak dituztenek, bestalde, deskontu bereziak dituzte.

Informazio gehiago nahi duenak kiroldegian edo 943 552185 telefonoan izango du. □

PILARIKETAN LAN EGITEKO PROPOSAMENA

Herriko talde, ikasle eta langileeri luzatzen diete deia

GAUR, 20:15etan bilera izango dute Biterin. Herriko zenbait dendarik bultzatuko ini-ziatiba herriko jende ezberdinari zabaldu nahi diote, jai egun hau "Euskal Herriaren ukapenaren ikur" juzgatzen dutelako. □

Udaletxean plenoa izango da gaur

Gaur arratsaldeko zazpietan hasiko da eta zazpi puntu aztertuko dituzte.

UDALETXEAN ohizko plenoa izango da gaur. Zazpi puntu izango dira aztergai: Hernaniko biztanleen udal errolda (biztanle kopurua, adinak...) zuzenduko da, eta Victor Hugo kalean (Lizeaga auzoan) dagoen aldizkari eta egunkari kioskoa eskuz alda-

tzeko baldintzak jarriko dira besteak beste.

Ekain Ruizen errautsak udalean sartu zirenean Estatu-ko abokatuak errekurtsioa jarri zuen. Gobernu batzordean abokatu izendatu zen udalaren postura defendatzeko, eta gaur, hori berretsi nahi dute. □

HITZ BITAN

✓ JUBILATUAK

Aralarrera joango dira larunbatean. Hernaniko jubilatuek ia asteburuero antolatzen dute irteeraren bat. Datorren larunbatean Aralarrera doaz goiz pasa, eta urriaren 7an Arantzara egun oso-rako. Aralarrerako izena ematera lehenbailehen pasa jubilatuen etxetik; Arantzarako berriz, urriaren 2a baino lehen (orduan baita zozketa).

✓ PELOTA

Kronika Pelota txapelketa datorren larunbatean hasiko da. 12 bikotek eman dute izena datorren larunbatean hasi eta ekaina arte iraungo duen txapelketa ligan. Partiduak igande goiz eta larunbat arratsaldetan izango dira. Datorren larunbatekoan Angel-Iñaki Legarreta-Gorkaren kontra arituko dira lehenbizi; eta gero, Iturbe-Tutu Magi-Txiliren aurka.

✓ FERIA

Feria Urbietan. Ostegunero bezala gaur ere feria izango da. Eta azkenaldian egin denari eutsiz, landareena eta hegaztiena ez dira Atzietan izango, Urbietan baizik.

✓ GATAZKA POLITIKOA

Zigorren hiru laurdenak bete dituzten presoan aldeko kontzentrazio isila. Gaur arratsaldeko zazpietan Pakito Lujanbio, Xabier Arnaniz eta Joxean Pagola Beltza kalera ateratzea eskatuko dute Plaza Berrin.

Bisita gastuetarako diru laguntzak. Hernaniko Udalak preso hernaniarrak bisitatzeak dakartzan gastuak arintzeko 338.000 pezetako diru laguntza onartu zuen Irailak 13ko Gobernu batzordean.

Angel Pikabearen epaiketa. Saran atxilotu zuten ereñotzuarra urriaren bederatzian epaituko dute beste hamarren bat lagunekin batera, Parisen. Amnistiaren Aldeko Batzordeak autobusak antolatu eta epaiketara joateko deia egin du "bere herritarrek Angel ikusteko aukera izango" dutela eta. Autobuserako txartelak Garinen izango dira salgai.

✓ UDALETXEKO ERAKUSKETA

Bataz beste, egunero 30 lagunek ikusten dute. Irailaren 14an irauguratu eta geroztik zabalik da *Hernaniko udaletxea: mende bat zutik* erakusketa. Asteburuan ikusle kopuruak gora egiten du eta joan zen igandean, esaterako, 70 bisitari izan zituen. □

AGENDA

ERAKUSKETAK

Hernaniko Udaletxea: mende bat zutik
Udaletxeko aretoan,
18:00-20:00.

Kuba orain hamar urte.
Argazki erakusketa
Zumardi jatetxean.
Juan Ramon Perez
Oreretarraren Kuadroak

Txema tabernan.

Argazki erakusketa
AEKri buruzkoa
Bodega tabernan.
Arratsalde, azokan.

Diapositiba emanaldia
AEKri buruzkoa
20:00etan -Bodega tabernan

ZERBITZUAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 557750

FARMAZIAK

► Egunez: Chucla
Kardaberaz, 49
☎ 943 551793
► Gaeuz: Zatarain
Andoain, Arteta, S/N
☎ 943 590802



URUMEA AUTOAK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA

Akarregi auzoa 25
☎ 943 33 22 74
20120 HERNANI



ETXE ONENAK, S.A.

GARAJE ITXIAK
'OBLATOS'ETAN
SALGAI

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37